

Joxe Azurmendi Katedra

Joxe Azurmendik obra bat eman digu, obra monumentalak, baina obra izatea ez da nahikoa transmisio arazoak dituen gure herrian. Sormenari herri-egiturak gehitu behar zaizkio, eta horretarako sortu genuen Joxe Azurmendi Katedra, euskal pentsamenduaren ur-jauziari errota-txo bat jartzeko. Ura ogi bihurtzeko.

Katedraren historiaurrera jotzen badugu, 2017-2018ra, lehen mugimendua Joxe Azurmendi honoris causa doktore izendatzeko proposatzea izan zen. Saiatu ginen Mondragon Unibertsitateak aitortza hori eman zekion, EHUUn ezin zelako, baina kudeaketak ez zuen fruiturik eman.

Garai horretan elkartu ginen hainbat irakasle eta ikerlari: Iñaki Zabaleta, Antonio Casado, Arantza Etxeberria, Haritz Azurmendi, Alba Garmendia, Cristina Lasa eta Haritz Garmendia, besteak beste, inplikatuena aipatzearen. Eta Jakin Taldearekin koordinatzen hasi ginen, Lorea Agirre, batez ere, baina Xabier Eizagirre ere bai, EHUUn katedra bat sortzeko. Torrealdaik egin zituen Joxe Azurmendirekin zubi lanak, eta berak lortu zuen «Joxe Azurmendi» izena jartzeko baimena.

Ez zegoen erraza. Funtzionatzen ez zuten katedrak ixteko joera zen nagusi EHUUn. Nekane Balluerka errektorearengana jo genuen, Agustin Erkizia Gipuzkoako errektoreordearen bitartez. Balluerkak Azurmendiren lana eta ekarpena ezagutzen zituenez, ez genion gehiegi azaldu beharrik izan, haren hitzetan «Joxe Azurmendi EHUko irakasle izateak erakundea prestigiatu duelako». Agustin Erkiziak pertsonalki hartu zuen barne kudeaketa, oztopo eta zailtasunak, ez txikiak, gaindituz.

Irakasle talde iraunkorra baginen, eta katedraren balio soziala begi bistakoa zen. Baldintza bakarra jarri zigun unibertsitateak: katedra berriak kosturik ez suposatzea. Hortaz, Gipuzkoako Foru Aldundira jo genuen

txanpon bila. Mesfidati ginen, Gipuzkoako eta Donostiako erakundeak Txillardegi nola tratatzen ari ziren ikusita. Bagenekien, ordea, Markel Olano diputatu nagusiak irakasle izan zuela Azurmendi, eta ezagutzen eta miresten zuela. Kongresuaren irekieran, esaterako, aitortza publikoa egin zion: «gure nazioak eman duen pentsalari inportanteena» kalifikatu zuen, «euskal pentsamenduaren modernizazioa lideratu duen pentsalaria». Ezin da hobeto esan. Joxe Azurmendik parez pare irekita utzi zizkigun unibertsitateko eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ateak.

Gipuzkoako Foru Aldundiko lehen bileran, Xabier Barandiaranek hartu gintuen. Gogoratzen dut luze egon ginela hizketan, eta herri-gintzarekin zuen kezka hitz egin zigula. Jarraian, beste bilera batera deitu gintuzten Sebas Zurutuza eta Olatz Errazkinekin. Aitortu behar dugu harrera beti bikaina izan dugula. 2018ko abenduaren 21eko Gipuzkoako Foru Aldundiko aurrekontuek ekarri zuten Joxe Azurmendi Katedrarako lehen diru partida. EHUKo Gobernu Kontseiluak 'Joxe Azurmendi Katedra proiektua' eratu zuen ondoren, 2019ko maiatzaren 21ean. Nekane Balluerka errektoreak eta Markel Olano diputatu nagusiak hitzarmena sinatu zuten uztailaren 5ean.

2019an bertan antolatu genuen *Euskal pentsamenduaren ur-jauzia* kongresua, San Telmo museoan, Joxe Azurmendiren azken agerraldi publikoa izan zena. Abenduko hiru egun haietan, euskal pentsamenduaren mundutxoaz Azurmendiren inguruan batzea eta benetan pozik sentitzea lortu genuen, haren apaltasunak, magnetismoak eta autoritate intelektualak elkartasun efektu hori eragin zuelako.

Sei urte pasa dira ordutik, eta, Iñaki Zabaleta gidari dugula, katedrak bere lanean jarraitu du. Gipuzkoako Foru Aldundiak urtero 45.000 euro inguru esleitzen dizkigu. Jakinekin elkarlanean, urtero liburu bat ateratzen dugu *Ur-jauzia* bilduman. Azurmendiren filosofiari buruzko doktorego tesi bat finantzatu dugu (Mikel Urdangarinen *Gizabere txoak gara*, Jon Umerezek zuzenduta), eta bigarren tesia bidean da. Hor joaten zaigu aurrekontu ia guztia, eta gainerakoa euskarazko GRAL eta MALak bultzatzeko diru laguntzetan banatzen dugu.

Ogi pixka bat kultur gose den herri honentzat.

*Goazeak denok elkar bat eginik gure bidean.
Herria! Herria! Hoa hire bidean, Herria! Herria! Herria!
Joxe Azurmendi: Hil da koplaria*